


2 Puzzlea

Denbora

Joxek, txerria saltzeko duela eta, argazkia atera eta Santo Tomas azokara joateko asmoa zuen. Haize bolada batek, ordea, irudia apurtu dio.



3 Buruari eragin

Matematikak gustuko al dituzu? Hala bada, ea eragiketa hauen emaitza egokia lortzen duzun. **Animo!!**

$$[2 + (3 \times 6)] : 2 - 4 + 5 - 2 = \text{[Yellow Box]} \quad (a)$$

$$[7 \times (8 - 6) : (4 + 3) + 4] \times 2 = \text{[Green Box]} \quad (b)$$


$$\{[(5 \times 5) : 5] \times 4 - 4 + 5 - 1\} : 4 = \text{[Blue Box]} \quad (c)$$

$$[(9 - 3 + 7 - 1) : 4] \times (5 + 5 - 7) = \text{[Orange Box]} \quad (d)$$

Erantzunak: 2.-1-8, 2.-1, 3.-e, 4.-f, 5.-b, 6.-c, 7.-a, 8.-d, 9.-h, 3.-a-9, b-12, c-5, d-9, 4.-3 eta 5.-5.-Saturno, martitz, merkuri eta jupiter. 6.-6, 4, 2, 1, 5, 3.

Benetako krokodilo bat etxean izatea ezinezkoa da, baina gustuko badituzu, jostailuzko bat egin dezakezu. Jarraitu argibide hauek!

Krokodiloa





Beharrezko materiala

- Guraizeak.
- Arkaitz markagailu beltza.
- Grapagailua.
- Zinta eranskor gardena.
- Burbuiladun plastiko berdea.
- Neurriak: 150 x 35 cm.
- Plastikozko bereizle gorria.
- Plastikozko edalontzi txikiak. Zuriak izan daitezela.
- Orri eranskor zuria.
- Kartoi mehe horia.


Egiteko modua

1 Kartoi mehe horia hartu, eta krokodiloaren irudia marraztu arkatz markagailuarekin. Irudia egin ostean, moztu.



2 Burbuiladun plastikoaren bi zati hartu, eta kartoi mehea eredutzat hartuta, marraztu berriro krokodiloaren silueta. Bi orriek bat egin dezaten, orri batean, burbuilak dituen aldetik marraztu behar da; bestean, berriz, atzeko aldetik. Marraztu ostean, guraizeekin moztu.


3 Plastikozko bi zatiak hartu, eta grapekin lotu. Baina, kontuz, gorputzaren aldea bakarrik grapatu behar duzu; hankak, isatsaren zati bat eta ahoa egiteko, 10 cm aske edo lotu gabe utzi behar dituzu.



-pasa

4 Sarraileak

Beñatek anaiari etxeko giltza eman dio, ez zuelakoan. Anaiak, ordea, etxeko giltza poltsikoan zuen; beraz, bi giltza berdin daude. **Multzo honetatik, zein da etxeko giltza?**



5 Itzalak

Astronomia gustuko baduzu, ariketa hau erraz egingo duzu. Hizkiak ordena egokian ipini, **eta lau planetaren izenak osatuko dituzu.**

ASUTORN

UMRRKIOE

MTIZRAT

JTIPEUR



6 Irudiak ordenatu

Goizean, jaiki garenean, eguraldi ederra egiten zuen. Pixkanaka, ordea, lainotu, eta euria hasi du. Hori kontuan izanda, **irudiak hurrenkera egokian jarriko al zenituzke?**




4 Orri eranskor zurian, bi biribil marraztu; margotu arkatz markagailuarekin, eta moztu. Buruaren ertzean itsatsi. Horiexek izango dira krokodiloaren sudur zuloak.

5 Mihia egiteko, berriz, plastikozko bereizle gorrian 14 cm-ko tira moztu. Ahoaren barruan itsatsi zinta eranskorarekin.



7 Krokodiloaren irudiari gorputza emateko, sobran geratu zaizkigun burbuiladun plastiko zatiak sartu ahotik.



6 Plastikozko edalontziak hartu, eta moztu 2 bat cm. Basoaren oinarrian bi biribil beltz margotu arkatz markagailuarekin. Krokodiloaren betileak egiteko, edalontziaren ertz bati bost tira ebaki. Marraztu betileak arkatz markagailuarekin, eta tolestu gorantz. Begiak krokodiloaren aurpegira itsasteko, erabili zinta eranskor gardena.

Krokodiloa egin dugun arren, beste hainbat animalia edo piztia ere egin daitezke. **Sortu zure maskota!**

